



ALDEZ AURREKO KONTSULTA. GAIA: OTSAILAREN 28KO 6/2005 FORU ARAUA, ARABAKO ZERGEN OROKORRA, ALDATZEKO AURREPROIEKTUA.

Xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onesten dituen maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuaz, goiburuan aipatutako aurreproiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan, iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak
- b) Onetsi nahi den arauaren beharra eta egokitasuna
- c) Arauaren helburuak
- d) Izan daitezkeen bestelako aukerak (arautzaileak eta arautzaileak ez direnak)

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean jasotako zenbait alderdiri buruzko arau esparrua ezarriko duen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasuna duten erakundeei haien iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, ekainaren 5era arte, aurrezkontsultak@araba.eus helbide elektronikoko postontziaren bidez.

| | |
|--------------------|---|
| AURREKARIAK | 6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa, Arabako Zergen Orokorra. |
|--------------------|---|



| | |
|---|--|
| KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK | Arabako Zergen Foru Arau Orokorra egungo arauetara egokitzeko beharra. Zerga iruzurraren kontra borrokatzeko beharra. |
| ONETSI NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA | Foru araua eguneratzeko beharra. |
| HELBURUAK | Egungo araudira egokitzeko eta zerga iruzurraren aurka borrokatzeko beharra dela eta, Foru Arauan aldatu beharreko alderdiak aldatzea. |
| EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUTZAILEAK ETA ARAUTZAILEAK EZ DIRENAK) | Aukerarik egokiena dela uste da. |